

Prentsa-oharra

IK4-TEKNIKERek eta GHk teknologia-arloko lankidetza-hitzarmena sinatu dute

- ▶▶ *Zentro teknologikoak I+G+b-ren plan estrategikoa garatzen lagunduko dio enpresari, balio erantsi handiko garabiak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatu ditzan*
- ▶▶ *GH Cranes & Components enpresak erakunde kolaboratzaile gisa sinatu du hitzarmena, eta, beraz, IK4-TEKNIKERen bezero estrategiko bihurtu da*
- ▶▶ *Hitzarmena gaur sinatu dute Alejandro Bengoa IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusiak eta José Antonio Guerra GH Cranes & Components enpresako zuzendari nagusiak*

(Eibar, 2019ko urriak 8).- GH Cranes & Components enpresak garabiak diseinatzeko, fabrikatzeko eta merkaturatzeko ditu, eta IK4-TEKNIKER zentro teknologikoaren erakunde Kolaboratzaile gisa sartu da, bi erakundeen arteko hitzarmena sinatu berri ostean.

Hitzarmena gaur sinatu da, zentro teknologikoak Eibarren duen egoitzan. Ekitaldian, parte hartu dute José Antonio Guerra GH Cranes & Components enpresako zuzendari nagusiak eta Alejandro Bengoa IK4-TEKNIKEReko zuzendari nagusiak.

GH Cranes & Components enpresa aitzindarietako bat da altxaketaren sektorean. Halaber, garabi-zubi estandarrak eta sektore zehatzetarako garabi-zubi bereziak fabrikatzeko ditu, oso-osorik. Horretaz gain, altxaketa-mekanismo guztiak (polipastoak), horien osagaiak eta ordezkariak diseinatzeko eta fabrikatzeko ditu, eta munduko edozein txokotan ematen die zerbitzu bezeroei. Sektoreko produktu-eskaintza zabalenetako bat dauka, eta, besteak beste, honako hauek eskaintzen ditu: portikoak, lumak, gurditxoak, mentsulak eta zamak igotzeko nahiz mugitzeko bestelako produktuak.

GH Cranes & Components enpresa eta IK4-TEKNIKER elkarlan estuan ibili dira azken urteotan, garapen teknologikoaren eremuan.

Hitzarmen berriarekin, ordea, IK4-TEKNIKERek modu aktiboan lagunduko dio GH Cranes & Components enpresari I+G+b-ren plan estrategikoa zehazteko orduan, kolaboratzaile teknologiko gisa jardunez. Zentzu horretan, IK4-TEKNIKERek honako arlo hauetan erantsiko dio bere know-how-a: kalkuluan, modelizatuan eta sistemen simulazioan; makinaren eta osagai mekanikoen bizitza-ziklo osoko portaeran (diseinua, fabrikazioa, baliozkotzea, eragiketa eta mantentze-lanak); tribologian; seinale monitorizatuak eta narriatze-mekanismoak korrelazioan jartzeko proba-bankuen erabileran eta bizitza baliagarriaren modelatuan.

GH Cranes & Components enpresak erakunde kolaboratzaile gisa sinatu du hitzarmena, eta, beraz, IK4-TEKNIKERen bezero estrategiko bihurtu da. Harreman estrategiko horrekin, bi antolakundeek arteko ezagutza sakondu nahi dute; plan teknologikoak partekatu eta lerrokatu nahi dituzte, eta teknologiaren nahiz merkatuaren eremu berriak esploratu nahi dituzte enpresarako, hori guztia I+G+b-ren proiektu bateratuak lerrokatuago egon daitezen, ibilbide handiagoa izan dezaten eta GH Cranes & Components enpresaren negozioan amaierako inpaktu handiagoa izan dezaten.

Azken txertaketa horrekin, erakunde kolaboratzaileak hogeita hamar baino gehiago dira jada. Bada, GHz gain, honako hauek osatzen dute taldea: [Aernnova](#), [Alfa Lan](#), [Doimak](#), [Egile Corporation](#), [Etxetar](#), [Fagor Automation](#), [Goialde](#), [Goizper](#), [Ibermática](#), [iLine Microsystems](#), [Jaureguizar](#), [Juaristi](#), [Kutxabank](#), [Lazpiur](#), [Maher Holding](#), [Maier](#), [Masermic](#), [Ojmar](#), [ONA](#), [Pasaban](#), [Siemens Gamesa](#), [Ulma Handling Systems](#), [Zayer](#) eta [Zigor](#).

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak 35 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (fabrikazio aurreratuan, gainazalen ingeniartzan, produktu-ingeniartzan eta IKTetan), eta abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen du horrek.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Eider Lazkano

eider@guk.es | Tel. 620 807 344

////////////////////////////////////